

## ZENBAIT EUSKALTZAINDIKOK EGINIKO GUTUNA

### EUSKALTZAINDIARI:

Euskeraren batasuna dala ta, eztabaida bizi eta kaltegarriak sortu dira idazleen artean eta garai egokia dala uste dugu, orain arte eman diran urratsak behar bezelako oharpezez aztertzeke.

Bitartean, idazki hau izenpetzen dugunok, gai honi buruz onurakorrak deritzaizkigun irizpide batzuk azaldu nai ditugu.

I. Lehindakariak Zaldibarren esan zuen bezela, batasunaren aitzakian ezdira euskalkien Literatur-saillak landu gabe utzi behar. Euskalki guztientzat hau beharrezkoa ba da, Ziberoke eta bereziki Bizkaikoendako areago, bi euskalki ederaberats hauek, erdi-aldeko giputz eta nafar-lapurtar-etatik berexien daudenak baitira. Euskaltzaindiaren literaturtxapelketan, bai euskalki batez eta bai euskalki batez eta bai euskera bateratuaz idatzitako lanak, bardin ontzat eman beharko lirake, epai-mayekoak beraz, elburu horretara autatuz.

II. Eskolatze arloan, izkuntza bizirik dagoen tokietan, leenengo ikastaldiak eskualdeko izkeraz irakatsi behar dirala uste dugu, nahiz gero euskera bateratuan abiatu eta jarraitu.

III. Batasun kontu hontan, korapillo aundiena ezta grafia hau edo hura erabiltzea, euskera xuxen eta propioaz idaztea baizik.

Esaldi batzuk, esan-erran, izango-izanen, eta bestelakoen era bata ala bestea bardin erabiltzeak ezdio batasunari baterre kalterik egiten.

Halaber, -ll- eta -ñ- soiñuak ezdira baztertzeko, Iparral-deko izen askotan ere zabalduak daudelako. -H- izkia erabiltzeko berriz, txoilik diptongoa austen dan kasuetan eta izen ordetan adiaraztea, bide erosoena dala deritzagu.

Gure irizpide hauek Euskaltzaindiari, begiramen aundie-narekin azaltzen dizkiogu, ontzat artuko dituelakoan.

Damaso Intza	Jose Miguel Barandiaran
Aingeru Irigaray	Jose Antonio Loidi
Josu Oregi	Arantza Idiazabal
Karmelo Etxenagusia	Lino Akesolo
Agustin Zubicaray	Ignacio Eizmendi - Basarri
Fernando Artola	Lourdes Iriondo
Polikarpo Iraizoz	Santiago Onaindia
Jose M <sup>a</sup> Lojendio	Juan Gorostiaga
Xabier Aranburu	Eusebio Erkiaga
Xabier Lete	J. A. Irigaray
Mikel Zarate	J. B. Dirassar
Xabier Peña	

**ENE ERITZIA ZENBAIT EUSKALTZAIN ETA LAGUNTZAI-  
LEK FIRMATURIKAKO GUTUN URRIKO BATZARREAN  
TRATATUKO DENAZ ETA ENE ERABAKI-  
PROPOSAMENDUA**

*Bilbon, 1976-X-19*

*Alfonso Irigoyen*

Euskaltzaindiaren urrengo batzarrerako deia hartu dudanean bilkura berezi batez zerbait ikusi dut, gutun bat bidali baitute zenbait Euskaltzain eta laguntzailek. Batzarrerara baino lehen zer zen jakiten arduratu naiz eta irakurtzeko modua izan dut denoi bidaltzeko baitzegoen Aita Villasante-ren eritziaz batera. Hona hemen ene eritziá ere erabaki-proposamendu bat eginik:

I. Euskaltzaindiko literatur-txapelketetan euskara batuan ez dauden lanak ere hontzat hartzeaz ni beti aldeko izan naiz eta inoiz batzarren batean edo bestetan esan ere egin dut arrazoia honela agertuz: teoriáz behintzat gerta daitekeela euskalki batean izkribaturikakoak literatur-balio handiagoak izatea eta halako kasuetan batez ere horri eman behar zaiola

axola. Beste alderdi batetik, ordea, oso oker ez baldin banago epai-mahaiekoak ez dira eskualde batekoak bakarrik izan orainarte, Euskaltzaindiko ohiturari beha bagagozkio. Horrek ez du esan nahi inondik ere Euskaltzaindiak euskara batua-ren bidea bultzatu behar ez duenik.

II. Eskolatzte arloan irakaslearen pedagogia egokiak eta zentzu honak izan behar du gidari azken finean euskara batua mendera erazteko ikasleari. Euskaltzaindia Euskaltzaindi bezala ez dut uste horretan sartu denik. Eta sartu egin behar ote du? Hori beste arazo bat da. Euskal gauzetan aski aditua den Ministerioa eta haren adarra bagendu, haren esku egongo litzateke nolabait bide batzuk zabaltzea, aldezaurretik arakatzeko-lan sakona bultzaturik. Behar dugun bezalakorik ez dagoenez gero pedagogian adituak direnen eskuetan utzi beharko dugu nolabait. Oraindik eztabaida mundu batean bizi baldin bagara firmatzaileek diotenez —eta eztabaidaren luze labur konkretoaz ez diote ezer—, denborari leku eman beharko zaio argi egin dadin irakaskintzan ari diren ofiziodunenganik, eta ofiziodunenganik diot eta ez talde edo taldeska mila arrazoi diferentegatik sorturikakoren baten izenean, besterik gabe, mintza daitezkeenganik. Leku batzuetarako egokiak diren bideak beste batzuetarako ez lirateke, agian, hain honak eta guzti hori zehatz eta mehatz aztertu behar da. Ni neu ere irakaskintzaren barrenean ofizioz sarturik banago ere ez naiz haurrekin ari. Dena dela, ene ustez zentzu honik gabe pedagogia bideak ezagutzeak berak ere ez du balio. Lehen lehenik haurrak maite izan behar dira, beren adinean ezagutzen duten edo dituzten hizkera eta guzti. Euskaltzaindiak orainarte egin ez duena eta ene ustez egin behar ez duena eta egingo ez duena euskalkiak eta hizkerak erabiltzearen kondenaizioa zabaltzea da. Tradizioz erabili izan direla, nork ipini du edo ipin dezake eragozpenik bere mailan erabili ez daitezen? Edozein modutan ere haziaz batera neska-mutilak goragoko mailalara heltzen direnean euskal autore klasikoak euskalki batean baino gehiagotan irakurri beharko dituzte eta horrek mesede handia egingo die euskara batu aberatsago baten jaube egin daitezen.

III. Euskara zuzen erabiltzea beharrezkoa da eta hala beharrez beti izan da, baina ondo ez dakienak ondo ikasi eta beregana dezan arte ez du sekula inongo euskalkitan eta ezta batuan ere ondo egingo, Euskaltzaindiak hortaz mila erabaki

har baditza ere. Diodana, jakina, gure elkargoaren ahaletarik ate dago, guztion —eta ez dut uste inor asaldatuko denik denon eritzi bezala azaltzera ausartzen baldin banaiz— gogorik biziena bada ere.

Halaber *-ll-* eta *-ñ-* arazoaz Azkue-ren hitzak ekar ditza-gun gogora, ez baita orain korritzen duen joera azkenengo gerra ondoan asmatu, aspaldiko denboretan eta lehengo lepo-ko burutik baino.

*Ardi galdua* elaberrian (1) J. J. Arin ta J. M. Zuazti apez-kide gipuzkoarrei zuzentzen dien hitzaurrean dio: "Oroitzen naiz, beste orraztaldi (reparos) batzuen artean, auxe maizenik egiten zenidatela: "¿Zergatik idasten dezu *baina, zinez, gainera*, Gipuzkoan *baiña, ziñez, gaiñera* esaten degunezkero?" Giputzera, zerbait beste izkelgietatik geituz, Euskalerriko izkera izatea nai nukelako; ta beste izkelgi askotan *maitte, gixon, bilddur, illak, itxasoa* bezela (ez *maite, gison, bildur, ilak, itsasoa*), *baina, zinez, gainera* ebaki oi dalako. Ikusi bitez, onetarako, oraintsu Oñatin erakutsi nituen ta aurki agertzekoak diran bi irakaskizunak: *De Fonética vasca* (2). In ta *il, iñ* ta *ill* esan oi dituzte ta litzazkete agitz giputzak beren izkelgian; idatsi, ordea, orok berdin dagigun. Arau onen bidez, izkera osoaren legeak osotasuna galdu gabe, oro batean jarri gindezke".

Eta *Euskera* aldizkarian ikus daiteke (1922, IV, 49-62 orr.) Azkue-ren beraren "Cuestiones fónético-ortográficas" lana, darabilgun gaiaz azken aldean, ondore bezala, Euskaltzaindiari erabaki-proposamendu bat egiten diona. Daraman fetxa 23-4-1921 da eta zazpi egun geroago aurkeztatu zuen Euskaltzaindiaren batzarrean. Honela dio:

"En su virtud, tengo el honor de presentar a mis compañeros el siguiente proyecto de

"*Proposición*. La Academia, al mismo tiempo de recomen-dar el uso de letras tildadas que indiquen nuestros lindos diminutivos orgánicos, tan originales y característicos de nuestro idioma, y velando por la uniformidad siquiera de la lengua escrita, aconseja:

(1) Bilbon, 1918, VI-VII, boskarren nota.

(2) Ikus *Prime: Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao 1919-1920, 456-480 orr. Hemen *t, d, l* eta *s* tildedunen ordez *tt, dd, ll* eta *x* erabili behar izan dira.

“1º. No se haga uso de estas tildes, ni de la cruz aspada que a una ha reemplazado, sino cuando los vocablos envuelven la significación arriba indicada; no escribiendo *aginndu*, *itto*, *gixon*, *ixuri*, *egñ*, *ill*, *gatx*, *itxi* e *itxu*, sino *agindu*, *ito*, *gizon*, *isuri*, *egin*, *il*, *gaitz*, *itzi*, *itsu*.

“2. Cuando algún vocablo sea de uso común en un dialecto, como lo es, por ejemplo, *itxaso* en bizkaino, se tenga como ley el uso de *s* palatalizada, sin que haya necesidad de escribir *itsaso* como en otros dialectos”.

Gerra ondoan Nazario Oleaga gure sekretario jaun izan zenak Azkue-ren bideari jarraitzen zion horretan (Ikus “Euskaltzaindiaren batzar-agiriak”, *Euskera* I (1956), 317-329 orr.), 1953-garren urtean *Euskera* ale txiki bat agertu bazen ere eta 27-garren orrialdean “Algunos acuerdos de la Academia vasca” tituluaren azpian hogeit hamar badakartza ere, beren artean bi urrengo hau diotenak darabilgun gaiaz: “Respecto a las variantes *baño*, *baino* o *baiño* será preferible escribir esta última en los dialectos meridionales”.

1. Argi eta garbi dago, itsu batek ere erraz ikus baitezake, lerro bi horiek ez direla batasunari begira kokatu hor, bitasunari begira baino.

2. Argi eta garbi dago, itsu batek ere erraz ikus baitezake, lerro bi horiek ez direla izkribatu Euskaltzaindiari aldeazurretik kontsonante palatalez ikertze sakon bat eskainirik, Azkue-k 1921-garren urtean egin zuen bezala, eta, orduan ere oraindik balio baitzuen, orain ere balio duen bezala bezalaxe. Zeren maingu eta txaingu hitz egiten baita lerro bi horietan, milatik bederatzirehun eta laurogei ta hemeretzi, nola-bait esateko, tinta-ontzian utzirik.

3. Ez da esaten zein batzarretan hartu zen hontzat eta nola, baina edozein modutan ere ez zen gauza serioa izan, zeren Nazario Oleaga gure sekretario jaunak ez baitzuen hontzat hartu eta lehengoan jarraitu baitzuen. Begien bistan dago ohitura hori zuenen batek edo bestek esan zuela: bestek egin dezala nahi duena, guk geureari jarraituko diogu ta batasuna hor konpon.

Aita Villasante-k bidali dituen oharretan Euskaltzaindiak ez duela ofizialki ezer erabaki Arantzazuko batzarrea eginez gero hain konsenso zabal batez azken bolada honetan korritzen duen joeraren gainean esaten da gutxi goiti beheiti, eta,

Mitxelena-k han azaldu zuen orduko bere eritzia besterik ez omen dago (*Euskera* XIII (1968), 208 orr.). Epe bat behar omen da batasunerako hon den idazkera hau onartzen, zabaltzen eta finkatzen den ikusteko. Baina barka biezat esaten baldin badut aski eta gehiegi dela —eta gu euskaldunon etsai batek baino gehiagok barre egingo luke baleki— berrogei ta hamabost urte luzeko epea, jasan dugun berrogei urteko garizuma bortitza baino luzeagoa, hain zuzen ere esku artean darabilguna Euskal Herri osoan jadanik inoiz baino konsenso zabalago batez inguratua dagoen arazoa baita.

Azkue-k ez zuen proposatzen bide hori bere jaioterrian palatalizaziorik egiten ez zelako, inon egiten baldin bada han eta inguruetan egiten baita, eta ez bakarrik *-in-* eta *-il-* egiturena, baita *-it-*, *-iz-*, *-ind*, *-int-*, eta abarrena ere.

Gure herrian badago Azkue-zale agerturik eta haren ize-naz baliaturik bere jokoa egiten duenik, haren pentsatzeko modua ezagutzen ez badu ere. Ez dut esan nahi, ordea, Azkue-k edo beste edozein jakintsuk, den handienak ere, esanikako oro hontzat hartu behar dugunik luze-laburrik, zuzen-okerrik eta neurririk hartu gabe, hala jokatzea unibertitate mundukoa ez baita.

Eta azkenik *h* grafiaz hau bakarrik esango dut: hasteko Euskaltzaindiak bokalen artean erabiltzea begi honez ikusiko zukeela esan bazuen ere, gorago jo nahi zutenen saioak ere ez zituela gaizki ikusiko esan zuen, eta, begi honez ikuste hutsak hain konsenso handia sortu baldin badu nola esan diezaiekegu orain bide horretan barrena abia erazi ditugunei begi gaiztoz ikusiko dugula, konsensoa apurturik anarkia eta guganako fidantziaeza sortu gabe. Arazo hau lehen Euskaltzaindiaren eskuetan bazegoen orain Euskaltzainditik ate dago.

Esan dudan guztiaren ondoan Euskaltzaindiari urrengo erabaki-proposamendu hau egiten diot urriko batzarrerako:

1. Azkue-k 1921-garren urtean Euskaltzaindiari egin zion erabaki-proposamendua eta Mitxelena-k Arantzazuko batzarreran eman zuen eritzia hontzat harturik, ortografia zuzen bezala gomendatzea.

2. Honelatsu eman daiteke jakitera: Euskaltzaindiak hontzat hartzen ditu *ñ*, *ll*, *tt* eta *dd* kontsonante palatalen grafiak balio adierazkorra duten kasuetan. Egituraren bidez, aurreko *i-* bokala dela medio, leku batzuetan sortu diren pala-

talizazioetarako, ordea, *-in-*, *-il-*, *-it-*, *-int-* eta *-ind-* erabili behar dira, palatizaziorik egiten ez den lekuetan bezalaxe. Halaber erdaratikako hitzetan, despalatalizazioaren bidez sortu den grafia hontzat harturik, hala nola *Espainia*, *gaztaina*, *teila* eta abar. Halaber ez dira erabili behar *x* eta *tx*, sibilante palatalak seinalatzeko ditugun grafiak, egituraren bidez, aurreko *i-* bokala dela medio, sortu direnean, hala nola *aizea*, *itsua*, *gizona*, eta ez *axea*, *itxua*, *gixona*, azkenengoa gizon txikia edo kaskarra adierazteko erabiltzen ez baldin badugu, halako hitzak hipokoristikotzat har baitaitezke. Toponimian, ordea, historia hurbileko egituraren bidez sorturikako palatalizazioa ez baldin bada, *i-* gabeko kontsonante palatalen grafiak erabiliko dira, hala nola *Mañaria*, *Amallobieta*, *Mendexa*, *Etxaleku*, eta abar, baina *Markina*, *Abadino*. Ortografia lege hauek berdin balio dute edozein euskalkitan eginikako izkribuetarako ere.

Geroago Euskaltzaindiak *h* grafiaren arazoaz zehatz eta mehatz hitz egin beharko du, daraman bidea eta duen kontsensoa gogoan harturik eta orduan finka edo baieztza daitezke ortografiaren beste puntu asko ere, jadanik bateratsu erabiltzen direnak euskarazko izkribuetan.

## GUTUNEKO IRIZPIDEEI ZENBAIT OHAR

*Arantzazun, 1976-X-7*

*Fr. L. Villasante*

Iritzi azaltze edo proposamen gisako gutun bat hartu dut, Euskaltzaindiari zuzendua. Egia esan, 1976. urteko agorra-abuztuan (sic) egina dela jartzen badu ere, ene eskuetara irailaren 23an heldu zen. Berandu, beraz, iraileko batzar-gaietan sartzeko.

Proposamen hunen azpian, oker kontatu ez badut, 23 jaun-en izen-deiturak datoz. Hoietarik 7, euskaltzain osoak dira. Gainerakoak laguntzaile direla uste dut; eta "uste dut" esaten dut, zeren izen batzuk enetzat irakurgaitz baitira.

Nolanahi den, begirunerik handienaz —baina baita lainotasun eta zintzotasun guztiaz ere— gutun labur huntan azaltzen denari buruz neure iritzia agertu nahi dut. Hobeki esan,

hala egitera behartua nago, zeren Euskaltzaindiko jaun mordoska batek Euskaltzaindiari azaltzen dion irizpidea baita.

Hasiera-hasieran hau dio delako gutunak: "Euskeraren batasuna dala ta, eztabaida bizi eta kaltegarriak sortu dira idazleen artean eta garai egokia dala uste dugu orain arte eman diran urratsak behar bezelako oarpenez aztertzeko".

Bai, egia da eztabaidak eta haserreak sortu direla euskeraren batasuna dela eta. Kaltegarriak izan direla eztabaidok gaineratzen du gutunak. Eztabaidek beti dute alderdi txar bat, zatikatzaile eta berezle direnez gero. Gure artean gertatu diren zatiketok beste edozeini hainbat edo gehiago min ematen didate neri, eta zatiketa hoiek gainditzea nahi nuke. Nola ordea? Hor dago koska.

Eta gero galdera hau egingo nuke: Euskeraren batasuna bezalako hauzia eraman ote zitekeen aurrera eztabaida gabe? Eta beste galdera oraino: Zilegi ote zaio Euskaltzaindiari egin behar duen egitekoa egin gabe edukitzea batzuren batzuk minduko edo haserretuko direlako beldurragatik? Hunelako edo antzeko eztabaidak nik uste dut hizkuntza denetan gertatu direla. Hor da katalanren kasua. Orain dela hirurogeiren bat urte hartu zuen katalanak batasun bidea. Eta nolako eztabaida zaratatsuak ez ziren sortu! Gaur, jakina, eztabaida hoik ahantzirik daude. Eta hor gelditu da orduan egindako urrat-saren mesedea.

Badirudi gure gutunak eztabaidon alderdi txarra baka-rrik ikusten duela. Alderdi txar hori nik ez dut ukatzen. Baina alderdi onik ez ote dute izan? Gaur ezin ukatua da, nik uste, batasunaren hauzia piztu zenetik, euskeraren beraren pizte bat ere nabaitu dela, euskal literatura ugaritu dela, euskera-ganako kezkak herrian erro sakonagoak egin dituela, gure eskolatuen artean askok euskeran bere arreta jarri duela, euskerari buruzko estudio eta azterketak gehitu direla, eta abar. Ez dut esaten dena batasunaren hauziagatik izan dela, baina neurri handi batean baietz esango nuke.

Atarian eztabaida kaltegarriak aipatu ondoan, gutunaren mamia hiru ataletan banatua dator: I Euskalkiak lantzearen alde, II Eskolatzeari buruz, III Grafiako zenbait punturi buruz.

Lehenbiziko atalean Zaldibarko ene hitzaldia aipatzen da. Egia esan, ni ez nintzen han lehenbiziko puntuaz aritu, biga-



rrenaz baizik. Dena dela, eta aipamen hortarik haria hartuz, pixka bat nahasian joango dira ene oharrak lehen eta bigarren puntuei buruz.

Zaldibarren, bada, euskal irakasleari gaur hiru bide edo aukera aurkezten zaizkiola esan nuen, hots: 1) Tokian tokiko euskera, herriko euskera landugabea, alegia. 2) Euskalki literarioa. 3) Euskera batua. Eta garbi esan nuen, gainera, euskalki literarioak ere euskera batu batzuk direla, tokian tokiko euskera mintzatutik gehiago edo gutiago aldenduak. Eta gauzak horrela izanik, kasu bakoitzean, eta kasu bakoitzeko aitzingibel konkretuak kontuan hartuz, ikusi beharko du irakasleak zer egin: edo tokiko euskeratik hasi, handik euskalkira pasatu eta handik euskera batura; edo tokiko euskeratik hasi, handik euskera batura eta azkenik euskalki literarioen xehetasunak eman; edo euskalkitik hasi eta gero euskera batura pasatu, edo alderantziz, etab. etab. Ez dugu ahortzi behar, gainera, Euskal Herriak lau euskalki literario dituela, eta Euskal Herriko eskualdeak zazpi direla. Orduan euskalki literario berezirik ez dutenetan nola beteko da gutun horrek eskatzen duena?

Ez dut uste, bada, eskolatzeaz denaz bezan batean, gutunak agertzen duen irizpide zurrun hori, bere zurruntasun horretan behintzat, bide ona bezala jo daitekeenik. Kasu bakoitzean beharko da ikus zer egin. Gainera, badirudi jator ez den aurre-iritzi bat dabilela hor lanean. Aurre-iritzi hau, alegia: Euskera batua, hizkera artifizial bat dela, eta euskalkia dela herriko euskera. Baina euskalkia ere —euskalki literarioa, eskoletan irakas daitekeen bakarra—, euskera batua bezala, eta munduko eskoletan irakasten diren hizkera guztiak bezala, hizkera batu bat besterik ez da, konbentzionalki bateratua, eta toki bakoitzeko aho-hizkeraz bat ez datorrena.

Gutun huntan gogo edo nahi bizi bat agertzen da euskalkiak lantzearen alde, eta guztiz ere Bizkaiko eta Zuberoako euskalkiak lantzearen alde, biak bazterrean egonik, erdiko euskalkietarik urrunduago daudelako. Nik ez dut deus gogo horren kontra, eta Euskaltzaindiak ere ez, noski. Aditz laguntzaile batua onartu zenean, garbi utzi zen puntu hau. Orduko erabakiak hara zer dion: "Ikusi direnak lirake, Euskaltzaindiaren iritziz, orangoz euskera idatziaren batasunerako aditz jokorik egokienak. Batasunari begira hartzen da,

beraz, erabaki hau, euskalkiei dagozkien forma bereziak arbuiatu gabe" (Ikus *Euskera*, 1973, 11 or.).

Nahi nuke jakin, haatik, zer den gutun hunen egilearentzat bizkaieraz idaztea. Izan ere, badirudi, hitz agerriz esaten ez bada ere, halako uhertasun bat edo oker adituren bat dagoela hemen ere. Badirudi, alegia zorioneko "H" a erabiltzen baldin baduzu, orduan euskera batuan ari zarela, eta beraz bizkaiera utzi duzula. Ez da hori hitz agerriz esaten, baina beharbada irakurle guti ohartuak ondorio hori aterako luke.

Orain, bada, azken urte hauetan, nik dakidala, egin dira bizkaieraz zenbait liburu Euskaltzaindiak gomendatutako idatz-arauak onartuz eta era berean Bizkaiko euskalkiari leial egonez. Hunako hauk behintzat gogoan ditut: Zarate jaunaren *Ipui antzeko*, Antonio Bilbaoren *Pentsakizunak*, Felix Bilbaoren *Ipuin-Barreka* (bigarren edizioa).

Irigoien jaunak ateraberi duen *Sorterriaren alde* ere, nahiz eta propioki bizkaieraz ez egon, jatorrizko euskalkitik ez dago bat ere urruti. Eta liburuok Euskaltzaindiak gomendatutako idatz-arauak betetzen dituzte.

Bego, bada, garbi hau: Euskaltzaindiak erakutsitako idatz arauak ez dutela euskalkia baztertzea eskatzen.

Gutunean esaten da gero Euskaltzaindiaren Literatur Txapelketetan ohar bat jarri beharko litzatekeela: bai euskalkiz, bai euskera batuan idatzitako lanak onartuko direla, alegia. Baina ba ote da orren beharrik, Txapelketa hoietan euskera batuan idatzi behar dela ere esaten ez denez gero? Arau batzuk gomendatzen dira bakarrik, eta arau hoik, edozein euskeratan idatziz ere, gomendatuak daude.

Gainera, Txapelketen oinarrietan espresuki sartu zen klausula bat, hunako hau esanez: Lanak epaitzerakoan literatura balioari kasu gehiago egingo zitzaioela, euskera moldeari baino. Nahikoa garbi dago, bada, kontu hau, ene ustez.

Gainerakoan, bistan dago Euskaltzaindiak berak gomendatutako arauak babestu behar dituela, munduko edozein Akademiak egiten duen bezala.

Ez ote dago guzti huntan —lehen esan dudan bezala— azpi uste bat: "H" a euskera baturako bakarrik delako ustea? Baina ez da hori horrela. Ortografi arauak hizkuntza osorako

dira, bistan da. Bestela oztopoak, zailtasunak eta eragozpenak, kendu edo gutitu beharrean, elkarren gain pilatzen ari gara.

Eta pedagogia aldetik uste dut zozokeria egitea edo behintzat bide txarra hartzea dela lehenik haur ttipiari *hartu*, esate baterako, "H" gabe idazten irakastea, eta gero, zerbait hazi edo tarrotu denean, hitz hura euskera batuan "H"kin idatzi behar dela esatea. Horrelako zozokeriarik ez dut uste inongo hizkuntzatan egiten denik eta ez dago arrazoirik guk egin dezagun. Frantsesez, esate baterako, ez zaio haur ttipiari lehenik "puá" (pronunziatzen den bezala) idazten irakasten, eta gero, tarrotu denean, hitz hura bera "poids" ortografia ofizialaren arabera idatzi behar dela jakin arazten. Eta gaztelaniaz ere inork ez luke egingo "hombre" hitza lehenik "H" gabe idazten irakatsi, gero bigarren edo hirugarren mailan "H" a sar arazteko.

Eta ez dakit guk zergatik egin behar ditugun horrelako gauzak.

Delako gutun huntan esaten da batasun hauzi huntan "H"ak ez duela horrenbesteko garrantzirik, baina gero, azken batean, badirudi dena dihoala hortara.

Nik ere aitortzen dut, noski, batasunaren hauzian beste anitz puntu dagoela beharbada garrantzi handiagokorik, baina puntu hunek ere badu berea. Eta arrazoa: Hizkera literarioak hizkera idatziak dira batez ere. Eta hizkera idatzien jazerak, ortografia izan ohi da. Hizkera hoik eskolan irakatsi behar dira. Eta haurrei hitzak ortografiak eman ohi dien jazeraz sartzen zaizkie begietan barrena, eta axolarik handiena du hitzok beti jazerak berberaz jantzirik ager daitezen. Hain zuzen ere, hemen datza erraztasunaren sekretua: hitzak beti era berdinez idatzirik egotean. Hori aspaldi esan zuen Eleizalde, Oinatiko batzarre famatuan, batasunari buruz egin zituen hitzaldietan, hain zuzen. (Ikus "Metodología para la restauración del Euzkera", *I Congreso de Estudios Vascos*, 434-435 or.).

Eta euskalkiek, hizkuntza beraren zatiak direnez gero, ortografia berbera erabili behar dutela, hori Sabino Arana berak irakasten du, eta begien bistako gauza da, gainera. Huna hemen Sabino Aranaren hitzak: "Lo razonable es, pues, que dentro del Euskera se construyan, por de pronto, tantos

dialectos como regiones hay dentro de Euskera que han sido políticamente distintas en la historia, y que cada uno de esos dialectos se forme con los elementos gramaticales y lexicológicos más puros que hoy se encuentren esparcidos en los diferentes subdialectos y variedades de la respectiva región. Pero esta demarcación interdialectal que propongo ¿supone también diversidad de ortografía? En manera alguna" (*Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, 25 or.).

Sabino Aranak ortografiari buruz hemen diona guztiz zentzuzkoa da. Eta Euskaltzaindiak gomendatu dituen idatz arauak ortografiari buruz dira, batez ere; eta hoiek, agi denez, hizkuntza osoarekin dute zer ikus, euskalkiekin ere bai.

Euskeraren barnean hesiak handitzen, paretak diren baino sendoago egiten eta gogortzen ibiltzea, hori bai dela denontzat kaltegarri eta heriotzerako bidea hartzea! Separatistak eta separatzaileak izan ditugu eta baditugu orain ere euskeraren barnean, eta puntu hori ukitzen du Irigoienek bere azken liburuan (*Sorterriaren alde*, 11 or., 13 or. etab.). Hots: bizkaitar baino gehiago bizkaitarrista direnak, eta gipuzkoar baino areago gipuzkoarristak, etab. Badirudi hoiek euskaldunak elkarrengandik nahi dituztela banandu, aldeak diren baino handiagoak egin, leizeak sakondu. Baina agerian dago Euskaltzaindiak ezin duela bide hori gomendatu.

Bide hori hartuz —zaticatzaileen bidea, alegia— bizkaitarrak berak aterako lirатеке kaltiar. Bigarren mailako euskaldun bezala geldituko lirатеке, trena galduko lukete, eta azkenean, hor geldituko litzateke beren euskalkia hesi hertsi horren barnean katigatua eta itoa. Horrelako etorkizunik ez diot neure herriari opa. Eta nik Zaldibarren esan nuenez, bizkaitarrek aspalditik begi ernea izan dute huntan, eta horregatik berak izan dira beti euskera batu zabal baten eregilerik eta bultzatzailek handienak. Hor daude, diodanaren lekuko, Garitaonandia, Azkue, Eguzkitza, Eleizalde, Altube eta han aipatu nituen beste asko. Eta lehenago, Mogel, Txomin Agirre etab., jatorrizko euskalkiaz gainera, beste euskera mota zabalago bat landu zutenak.

Eta hunenbestez, lehen eta bigarren atalei buruz neure iritzia eman dudala uste dut. Hel diezaigun orain hirugarrenari. Grafiari buruz bi uste edo nahi azaltzen ditu gure gutu-

nak: 1) *Ll* eta *Ñ* idaztearen alde, eta 2) *H* letra, diptongoa hausten den kasuetan eta izen ordeetan bakarrik erabiltzearen alde.

Huna hemen bi puntu hoiei buruz esan behar dudana:

Euskaltzainburu naizen aldetik eta naizeino, eta Euskaltzaindiak besterik agintzen ez duen bitartean, haren arauak edo agiriak gordetzea da nire eginbidea. Horra, bada, bi puntu hoiei buruz Euskaltzaindiak orain arte esan duena:

1) *Ll* eta *Ñ*-ri buruz hunako hau aurkitzen dut 1954.eko urriko *Euskera* zenbakian, 27. orrialdean: "Respecto a las variantes baño, baino o baiño será preferible escribir esta última en los dialectos meridionales".

Ikusten denez, hemen *LL*-ren hauzia ez da aipatzen. Baina biak kasu berean daudela uste dut.

Beraz, Euskaltzaindiak gomendatzen du letra hoién aurretik beti *i* idaztea. Beraz, gaur ere zenbait aldiz ikusten ditugun idazkera itsusi eta dorpe hauk: *baña*, *ollo*, *Salbatzalle*, *oñ*, Euskaltzaindiak ez ditu gomendatzen.

Azkuek ere hori erakusten du: *i* hori, alegia, ez dela kendu behar. Ikus, esate baterako, zer dion *Diccionario Vasco Español Francés* delakoan, OIN hitzean: "La prueba concluyente de que se debe escribir así y no, como muchos lo hacen, o, es que en muchos lugares dicen *Oiñe* "el pie", en vez de *Oiña*; siendo de advertir que la *A* no se transforma en *E* sino después de *i* y de *u*. *Miñe* por *Miña* "el dolor"; *Biribille* "lo redondo"; *Eskue* "la mano". *Oñe* "el pie", *Lastalle* "el mes de octubre, lit. de las pajas", no se dirían, si no sonara en ellos la vocal *i*. Debe, pues, escribirse *oiña*, *lastailla*, *baiña*, *mailla*, *gorgoilla*, etc., y no *oña*, *lastalla*, *baña*, *malla*, *gorgolla*".

Beraz, batasunerako kaltegarri dena, *i* hori kentzea da. Hemen bada batasun bat, eta *i* hori kentzeaz batasunaren kontra ari gara.

1954.eko agiria, *i* gordeaz gainera, *Ñ* eta *LL* idaztearen alde dago, baina muga bat du: Hegoaldeko euskalkietaz bakarrik ari dela, alegia.

Ondoko urteetan, berriz, guztiok dakigunez, Arantzazuko batzarretik honuntz, planteamentu berri bat egiten da: istilu hauek euskera eta Euskal Herria batasun bat bezala hartuz erabaki nahi dira. Beraz, arau bat nahi da guztiontzat balio

lezakeena. Eta ez da inor gaur planteamentu edo urrats hunen bidezkoatasuna eta are beharra eta abantaila ere uka lezakeenik. Behintzat, beti zatikaturik ibiltze hori garaitu nahi baldin badugu, planteamentu orokor hoik beharrezkoak ditugu, eta gaur noraezekoak dira.

Arantzazuko batzarrean, bada, Mitxelena jaunak Euskaltzaindiaren aginduz batasunari buruz prestatu zuen txostenean hauxe dio:

“a) Idatz dezagun, gutxienez, *iñ* eta *ill*, *ñ* eta *ll*-ren orde, hitz adierazkor (expressif) horietakoak ez baldin badira beintzat (*-ño* atzizkia daramatenak eta): *baiña*, *baiño*, *oillo*, etc., ez *baña*, *baño* eta *ollo*. Hitz-azkenean, gainera, beti *-in*, *-il*: *gain*, *zail*.

b) Hobe, ordea, *il*, *in* idaztea soil-soilik, aski bait litzake hori edozein ohar dedin *i* hori dela medio, bere euskalkian, hurrengo *l* eta *n* bustiak direla: giputzen artean, esaterako, *ibili*, *baina*, *gainetik*, *laino*, *min-ondo* idazten dena *ibilli*, *baiña*, *gaiñetik*, *laiño* (edota *baña*, *gañetik*, *laño*, *miñondo*) irakurri ohi dela”. (Ikus *Euskera* 1968, 208 or.)

Mitxelena Jaunaren gomendio huntarik sortu da gure artean (Hego Euskal Herrian esan nahi dut) azken urte haue-tan Ñ eta LL ez idazte hori. Eta bere arrazoi errutsuak ditu joera hunek euskaldun guztion artean idatz batasuna lortze-ko.

Orain, egia esan, Euskaltzaindiak, nik dakidala, ez du huntaz agiririk edo erabakirik eman. Euskaltzaindiari zuzendu zaion azalpen huntan hunela esaten da: “LL eta Ñ soinuak ez dira baztertzeko”. Baina hemen ez gara soinuez ari, idazte-ko formaz baizik. Idatz dezagun denok berdin, eta ahozka beza bakoitzak bere euskalki edo tokiko euskeraren arabera: hori da bidea.

Beraz —eta puntu hau buka dezadan—, Euskaltzaindiak huntan zerbait gomendatu badu, *i* hori beti jar dadila gomen-datu du. Ginerakoan, batasun bidea Euskaltzaindiak hartu zuenez geroztik, Mitxelenaren gomendio bat dago, eta ez bes-terik. Arrazoi berririk azaltzen ez den bitartean Euskaltzaindiak ez luke, ene uste apalez, huntan ezer erabaki behar. Epe bat behar da batasunerako on den idazkera hau onartzen, zabaltzen eta finkatzen den ikusteko.

2) Eta goazen azken puntura, H-arenera. Hemen, bai, bada Euskaltzaindiaren agiri bat. (Ikus *Euskera* 1968, 250 or.). Ez noa agiri hori hitzez-hitz jartzera, ezaguna denez gero. Delako gutun edo adierazpen hunek hunela dio: "H izkia erabiltzeko berriz, txoilik diptongoa austen den kasuetan eta izenordetan adiaraztea, bide erosoena dala deritzagu".

Beraz, badirudi eske hau egiten zaiola Euskaltzaindiari: hunek erabaki dezala, alegia, H letra bokalen artean eta izenordeetan bakarrik jartzea.

Ohar xoil hauk datozkit gogora, eta hunekin bukatzen dut. Euskaltzaindiak hori erabaki edo gomendatzeko arrazoiak, nun dira? Delako gutunak ez ditu ematen. Eta hori erabakiz edo gomendatuz, zer irabaziko luke Euskaltzaindiak edo Euskal Herriak edo euskerak? Ene ustez, deus ez. Eta arrazoiak ematen ditut: H bat bakarra inoiz eta inolaz ere jarri nahi ez dutenek ez lukete obedituko, eta gehiagoren alde daudenek ere ez, noski.

Beraz, oraingoz hauzi hau bat ere ez ukitzea hobe. Lehen esan dudan bezala, epe bat behar da, denbora bat, alegia, eztabaidak ema daitezen, zentzua bihur dadin, eta gomendio gisa eman ziren arauak finkatzen diren ala ez ikusteko.

Bitartean, hobe da gauzak dauden bezala uztea, zeren erremedioa ez baitago gure eskuan.

Nik neure aldetik beste zertxobait ere gaineratuko nuke. Euskaltzaindiak, ene ustez, beharko du egunen batean H-dun hitzen katalogo edo zerrenda egin, eta gida moduan irakasle-ikasle, idazle-irakurleei eskeini. Hori egiteko, ordea, ez dakit garaia heldu den. Ez dakit, alegia, hori egiteko behar liraten oinarritzko azterketa eta estudioak behar den bezain beste helduak diren. Baina horren beharra badugu, ene ustez.